

A.T.V. 6607

"Arantzazuko Amaren umetxoan"
Alkartasunezko Euskal-Meza

I. O. Arantzazuko Aita
Prantziskotarak eratua.

*Arantzazuko Andre - Mariaren
Bureskundeko 50' garen urtean.*


«ARANTZAZU» izarkolan.

1986

7



Δ TV. 660 Z



«EUSKAL MEZA».



ARANTZAZU'KO
ANDRE MARIA
GIPUZKOA'KO ZAINDARIA



"Arantzazuko Amaren umetxoen"
Alkartasunezko Euskal-Meza

I. O. Arantzazuko Aita
Prantziskotarak eratua.

Arantzazuko Andre - Mariaren
Bureskundeko 50' gañen urtean.

«ARANTZAZU» irarkolan.

1936

Nihil obstat
Fr. Basilius Guerra,
Censor Ordinis.

Imprimi potest
Fr. Julius Eguiluz, o. f. m.,
Min. Prov.

Nihil obstat
P. de Menchaca

Imprimatur
Victoriae, die 12 junii 1936.
† *Matthaeus Episcopus Victoriensis*

LIBURUTXO AU ZERGATIK ATERA DEDAN

Meza era askotara entzun ditekete. Gutxienez gauza santuak gogoan erabiltzea edo otoitzen bat esatea beaŕekoa da. Baiña onena apaizarekin batean guztia gogoz egitea izango litzake, koruko abeslariena, eŕi guztiak kantatzen dualarik: eta latinez gaiñera, Eleizaren izkuntza zaŕa auxe baita (1). Onixe bakaŕik ezaŕi litekio bete-betea «liturji-bidezko era» izena. Ta «liturji-bide» onentzat jaŕiak dira Eleizaren meza-moduazko arauak: noiz ta nola kantatu bear dan, eta abar.

Beste nunbait azaldu det zergatik bide au gaurkoz zailtxo dan. Gaiñera, kristau-ikasbide gutxi ta itzaldi gutxiago bearbada aditu dutenai, ulertzen ez duten latin ortan esaten diran gauzak aspergaŕi zaizkie ta, beaŕean ezik, ez dijoaz mezatarra. Oŕegatik, meza-bitartean bederatziurēnak egin edo eŕosarioa esan baiño egokiago, meza-liburuko otoitzak esatea bada, auek gaurko eŕiarentzat bere izkuntzan jaŕi bear. Bear bada ulertzen ez dan izkuntzan ere baŕuko berotasuna azaldu ditekete.

(1) Ez abeslariena bakaŕik, meza-laguntzaileak erantzun oi duan guztia erantzuten dute alkartasunean meza-entzule guztiak, toki batzutan, gure Arantzazuko ikastetxean ta Durangoko San Antonio ikastetxean, esate baterako.

— VI —

Baiña Paulo deunak ere, Espiritu Santuaren indarrez izkuntza ezkutuetan itz egiten zutenak baiño izkuntza ezagunean egiten zutenak naiago zituan: «*Nam si lingua orem, spiritus meus orat, mens autem mea sine fructu est*: izkuntza ezkutuz otoitz badagit, otoitzean da noski gogoa, baiña adimenak onurarik eztu». Oregatik: *Orabo spiritu, orabo et mente*: bai gogoz, ta bai adimenez—uler tuaz—otoitz egingo det» (*I Cor. 14, 14-16*).

Au dala-ta, angoak edo orkoak mezako otoitzai jaraituaz, abestiz ta otoitzez, alkartasunean meza entzuten zutela aditu izan dedanean (alkartasunezko meza-modu au baiño edeñagorik ezpai tago; bakoitzak bere otoitzak etxean edo mezatik kanpora ere egin ditzake, baiña mezatan guztiak bat egin bear lukete); beingoan araxe joan izan naiz, uraxe ikustearén. Baiña geienean mezako gogaketak azaletik baiño etzituzten artzen, ta sañi mezako bezela kantatzen ziran abestiak, mezarekin zer-ikusirik etzeukaten: Ama Birjiñarenak edo izan oi ziran.

Eleizaren otoizkera edeña gure umetxoan artean zabaldu-naiez, neronek egin bear izan det beraz euskal-meza bat. Eta, umetxoai azalduaz, eleiz-otoizkera au, gaurko egunean gutxi oitua izan añen, ulerkor ta atsegin zaiela ikusi det. Mezako otoitzak: auetxek dira egiazko kristau-otoitz jatorak. Ez dio kristauak Jaungoikoari edo nolakoa

— VII —

dan ez dakian «Jaungoikotasun» bati edo «Izadiari» otoitz egiten, kristau eztiranak bezela: Aita Jaungoikoari, Espiritu Santuaren indaiez, Kristorekin bat eginda otoitz egiten dio. Oña zergatik mezako otoizkeran Irutasun guztiz donea ainbeste aldiz aitatu oi dan; ta oña zergatik Jesukristoren goi-gorputz gerala ainbeste aldiz gogoarazten dedan: ura ulertzeko, beaŕekoa dalako.

Oŕela, «liturjiaren» itzak eta azala baiño geiago aren baŕuko muiña atera nai izan det. Apaizarekin batean egiteko, azkar joan bear litzakelata, laburtu egin bear izan det toki askotan, geienetan bi edo iru aldiz esan oi diran gauzak bein bakaŕik euskeratuaz. Diakono jaunak kristauai aintziñako mezamoduan Otoitz Nagusi edo Kanon birtartean apaiza zer egiten ari zan azaldu oi zien bezela, zuzentzailearen ezpaiñetan aien antzeko azalaketak jaŕi ditut.

Nola laburtu edo ditudan otoitzak? Esate baterako «Eskeintzaldian» esan oi diran asmoak—Santuak goratzeko, kristauen onerako ta Irutasun guztiz donearen aintzarako—Otoitz Nagusiaren azkenerako utziaz;...«gora Jaunaren izena, bizi ta ilentzat goi-osasuna, zerutaŕentzat omena»; «*Communicantes*» eta «*Hanc igitur*» bizien aldeko otoitzean alkartuaz: «Andre-Mariarekin... (= *Communicantes...in primis gloriosæ semper Virginis...*); bedeinkazio ta azken-ebanjelioko go-

— VIII —


gaketak («*dedit eis potestatem filios Dei fieri*») baten sartuaz; «*Paternoster*» ta «Pake-ematea» jaunartze-aurreko abestian lotuaz...

Emen agiri diran meza-kanta auen abeskera edo doiñua nai al zenduke, irakurle? Oso ereza dezuz: silaba bakoitzeko nota bat geienez, oso gutxitan nota bi. Eskatu Arantzazura.

Beste oartxo bat. Epistola, Ebanjelio, ta Eleizotoitzak guztiak argitaratu bear bagenitu, luzee-gi izango litzakelata, bakoitzak euskeratu bitza igande bakoitzerako, gerok Arantzazun egiten degunez. Santuen jaietarako *meza-saiera* ta abestiak pozik egingo nituan meza-liburuan bezelako sailetan: apostoluentzat, martirientzat eta abar; baiña erezagor izan dakizun, saile bi bakarik egin ditut: Ama Birjinaarena ta gainetarako santuena. Baita «*Ordinarium Missæ*» itzez itz euskeratzekotan ere egon naiz; ta abesti-gabeko euskal-meza bat ateratzeko asmotan ere bai. Egokiago dala derizkiodana zure eskuetan jartzeaen, beste guztia alde batera utzi det.

Oraingoz naikoa. Kristauari dagokionez, meza-zale bazera, Irutasun guztiz doneak bedeinka zaitzala ta liburutxo au onuragarri izan dakizula opa dizu

Egileak.



ELEIZAN SARTZEAN

Aita Prantzisko donearen otoitza.

Emen ta lufean diran zure eleiza guztietan *
gurtu ta goratzen zaitugu, * Jesukristo gure Jaun
guztiz done ori, * zure gurutze santuaren bidez *
mundua askatu dezulako.

(7 urte ta 7 berogeikaroko barkamena irabazten du eleizan sar-
tzean edo andik irtetzean otoitz au belaunikaturik esaten duanak;
ta, egunero esan ezkerro, barkamen osoa illean bein).

MEZA SANTUA ZER DAN

Meza santua opari bat da, Jesukristok gurutzean eskeiñi zuan opari berbera, apaizaren bitartez aldarean beritua.

Oparia osotzeko iru gauza bear dira: opalgaia, opaltzailea ta opalkuntza.

Opaltzailea apaiza izan oida, bai Lege zafean ta bai berian ere. Baiña Lege berian benetako opaltzailea, opaltzaile nagusia Jesus da; apaiza ordezeko opaltzaile, bigarren mailako opaltzaile besterik ezta.

Opalgaia Lege zafean abereen bat edo luñeko arnariak el — Melkisedek apaizaren oparian beintzat — ardogia izan oi ziran; Lege beriko opalgaia Jesus da.

Opalkuntza opalgaia egitez edo irudiz ezereztuaz (arkume bat bado, ilaz; ardoa bada, ixuriaz eta abar) egin oi da.

Opalkuntza onek, opalgaia egiz edo irudiz ezereztutze onek, guza guztiak Jaunarenak oso osoan dirala adierazten du, baiña geron buruak ezereztu beafean, auen ordezeko zerbait ezereztutzen degu, Jaunaren guztizko jabetasuna aintzat artuaz.

Oparia osotzeko, beraz, opalgaia opaltzean, gogoz geron buruak ere opaldu egin bear ditugu; opalgaiak, geron buruen ordezeko bezela, geron opalkuntza odierazten baitute.

Lege beriko oparian, ordea, Jesukristo ezta gure ordezeko opalgai uts bat; ori baiño zerbait geiago da: gure buru.

Jesukristok eta kristauok Jaungoikozko goigorputz bakar bat osotzen degu, gu aren gorputz-zati ta ura gure buru dalarik. Argatik aren opalkuntza, egiz ta izatez gero opalkuntza da; aren Jaungoikozko bizitza, kristauon goi-bizitzaren jatorburu dan bezela: Jesukristo gudan bi-zi dan bezela, aren oparia gudan beritzen baita. Mezako oparian, beraz, ezta Jesukristo gure ordezeko opalgai utsa; guztiok gera Jesusekin batera opalgai.

Opaltzaile nagusia Jesus berbera dala esan degu ta apaiza bigarren mailako opaltzaile. Baiña ezta apaiza opaltzaile bakar bat; kristau guztiok ere—Jesus apaiz nagusiaren gorputz-zati bezela—Jesusekin batera opaltzaile gera: irugarren mailako opaltzaile alegia. Argatik esaten digu apaizak: orate fratres... otoiz egizute, anaiok, nerea ta zuena dan opari au Jaungoiko alguztidunak begi onez artu dezan.

Opaltzailea ta opalgaia gurutzeko ta aldareko oparian bat —Jesukristo berbera— diralarik, oparia ere bat izan bear.

Eta Jesus eta Eleiza gorputz bat izanik, aren ta kristauon oparia ere bat izan bear.

Eta gizona Jaungoikuarentzat egiña dalarik eta Jaungoikoarekikoa gizonak ondoen oparian egiten dualarik, Meza santua baiño gauza aundiagorik munduan ezin ezer izan. Meza santuaren bidez mundu guztia ta gizonaren bizitza guztia ta zerutar guztiak Jaungoikoarekiko alkartasunean bedeinkaturik eta doneturik gelditzen dira. Aldare inguruan daude Jesusen gorputza osotzen duten guztiak: aldareko erlikiak eta santuen irudiak zerutarak lurtarakin batean, Jesusen gorputz-atal bezela, aintxe daudela adierazten dute. Oregatik esaten du apaizak: Communicantes et memoriam venerantes... Andra-Mariarekin (eta beste santuakin) alkaturik eta auen izenak gogoraturik...

— 3 —

Meza aldarean egiten da. Aldarea maia da, oparia egiteko maia edo opalmaia. Eriak «eretabloari» ere aldarea esaten dio; beste askok, ordea, oltza: iruditegia izen egokiagoa da, santuen irudiak jartzeko da-ta. Iruditegia oparirako beaŕekoa ezta opalmaia bezela; baiña oso egoki da zerutarak ere aldare inguruan daudela adierazteko.

Oparia lau asmotarako eskeintzen da:

A) Jaungoikoaren guztien gaiñetiko jabetasuna ezagutu ta ontzat emateko (adorazioa);

B) Eskeŕak emateko (eukaristia);

C) Pekatuen zoŕak ordaindu ta Jauna biguntzeko (espiazioa);

*D) Bearditugun gauzak eskatzeko (impe-
trazioa).*

MEZA AUŔEKO OTOITZA

Maria oiñazez beteak * Kalbario-gaiñean zeuzkan * asmo ta gogoakin bat egin-da, * Jesus zure Seme maiteak * gurutzean eskeiñi * ta orain aldare ontan * beŕitzen duan * bere buruaren oparia * lau asmo auetarako * eskeintzen dizut, Aita Betiko ofi:

Lenengo, * gauza guztien jabe nagusi * zerori zerala, * dana zure menpean dagoala * ta guztion azken-elburu bakaŕa zerala ezagutuaz, * zure izena gurtu * ta dagokizun omena emateko;

Bigaŕen, * zure azkengabeko onegiteai * zor zaien eskeŕona erakusteko;

Irugaŕen, * ainbeste pekatuengatik * zure asaŕe zuzena bigundu * ta aien zoŕak bear bezela ordaintzeko;

Laugarren, * neretzat, * (nere senide ta adiskide-entzat), * negarfean ta naigabeen bizi diranentzat, * pekatari erukarientzat * eta Garbitokiko anima gairxoentzat * zure grazia ta erukia eskatzeko. (300 eguneko barkamena; ileko igande ta jaietan esaten dutenentzat barkamen osoa ilean bein, Pius X, 1904).

MEZA SANTUA

Mezak iru atal nagusi ditu:

A) OPALAUREA (*asieratik Eskeintzaraino*)
bi zatikin:

a) Gertaera-otoitzak (*Epistolaraino*); b) Irakasketak: *Aita Jaungoikoaren Bidaliak* (*Igarleen edo Apostoluen irakurgaietan*) itz egiten digutenekoa (*Epistola*); *Seme Jaungoikoak* itz egiten digunekoa (*Ebanjelioa*); *Espiritu Santu Jaungoikoak* apaizaren aoz itz egiten digunekoa (*Itzaldia*); eta *guk siñismena aitortuaz erantzuten degunekoa* (*Kredo*).

Lenengo atal oni kristaugaien meza ere esaten zaio, kristaugaiak, siñisgabeak eta pekatariak atal au entzuteko eskubidea bazeukatelako. Ondoren, auek kanpora irtenda, bigarren atala asten zan:

B) OPARIA (=kristau siñiste-dunen meza) *iru zatikin:* c) *kristauen emarien eta batez ere Jesusen gorputz-odol biurtzeko diran ogi-ardoaren Eskeintza* (*prefazioraino*), d) *Jesusen aldareratzea edo Aldakuntza* *donea* (*prefaziotik Paternostereira*);

— 5 —

e) Jaunartzea (*Jaunartzeko gertaera-otoitza dan Paternosteretik aurrera*).

C) OPALONDOA: *Jaunartzeondoko otoitzak, bedeinkazioa ta azken-ebanjelioa.*

MEZAREN LENENGO ATALA

A) OPALAUREA

a) *Gertaera otoitzak.*

Aldare-auñekoa.

BATEK. — Aitaren ta Semearen... Jaunaren alda-re-añean gaude. Mezako ezkutukiak bear bezela ospatzeko, pekatuen damuz beterik biotzak garbitu ditzagun.

GUZTIAK. — (Abestu).

Zugana gatoz eñuki-eske,
Aita Jaungoiko Santua;
Barka zaiguzu, garbi gaitzazu,
Damu degu pekatua.

(Edo, bestela):

G. — Nik, pekatari onek aitortzen diot alguzti-dun Jaungoikoari, Andre Maria beti-Birjiñari, zoriondun Migel Goiaingeruari, zoriondun Juan Bautistari, Pedro ta Paulo Apostolu Doneai, beste Done guztiai eta zuri, ene Aita, pekatu asko egin dedala gogapen, itz eta egiteetan, nere eñuz, nere eñuz, nere eñu aundiz. Oregatik eskatzen diot Andre Maria beti-Birjiñari, zoriondun Migel Goiaingeruai, zoriondun Juan Bautistari, Pedro ta Paulo Apostolu Doneai, beste Done guztiai ta zuri, ene Aita, otoitz egiozutela nere alde Jaungoiko gure Jaunari.

— 6 —

(Apaiza aldarera igotzean).

B. — Orain, apaiz jaunak santuen erlikiak gordetzen dituan opalañari mun egiñaz esaten duan otoitz au, guztiok batean esan dezagun.

G. — Jauna, * santu guztien irabaziengatik * eta batez ere * beren erlikiak aldare ontan dauzkatengatik, * pekatu guztien barkamena * eskatzen dizugu. Amen.

Meza-saiera.

(Apaizak introitoa edo saiera esaten duan artean, astia izan ezkerro, eguneko jaiari dagokionez, lenengo eraskiñean jartzen ditugun otoitzak esan ditezke).

Kyrie.

B. — Jauna, eruki zakizkigu.

G. — Jesukristo, eruki zakizkigu.

G. — Jauna, eruki zakizkigu.

Gloria.

B. — Mundua Jaungoikoari eruki-eske egon ondoren, Jesus jaiotakoan aingeruak Gabonez abestu zuten eresia abestu dezagun. Aintza Jaungoikoari zeruan.

G. — Jaunaren gogoko gizonai pakea lufean.

(Abestu)

Zeru lufen Jabea,
Jaingo alguztidun,
izaki guztiakin
goratu dezagun.

B. — Maite zaitugu, Jauna; bedeinkatzen zaitugu

G. — Gurtu ta goratzen zaitugu.

— 7 —

(Abestu)

Aitak egin ginduan,
Semeak askatu,
Espiritu Doneak,
goi-graziz indartu.

B. — Zure on-egite guztien ordaiñez.

G. — Zure aunditasunari eskeřak ematen diz-
kiogu.

(Abestu)

Goretsiak Aitari
eta Semeari;
aintza ta eskeřona
Gogo Doneari. Amen.

APAIZAK. — Dominus vobiscum.

G. — Et cum spiritu tuo.

Eleiz-otoitzak.

B. — Eleizarekin batean otoitz egin dezagun
(eguneko eleiz-otoitza).

G. — Amen.

b) *Irakasketak.*

Epistola.

B. — Epistolan Aita Jaungoikoaren mandatariak
itz egiten digute. Irakufi dezagun N. N.'ren gaurko
epistola-atala (Epistola irakufi).

G. — Eskeřak Jaunari (Deo gratias).

Ebanjelioa.

B. — Ebanjelioan Seme Jaungoikoaren itzak adi-
tzen ditugu. Irakufi dezagun N. Donearen gaurko
Ebanjelio-atala (Ebanjelioa irakufi).

G. — Aintza zuri, Kristo. (Laus tibi, Christe).

Itzaldia.

B. Itzaldian Espiritu Santuak apaizaren bidez

— 8 —

itz egiten digu. Aretaz ta begirunez aditu dezagun.

G. — Jaungoikoaren grazia lagun dezagula.

Kredoa.

B. — Irutasun guztiz Donearen irakatsiak aditu ondoren, gure kristau-siñismena aitortu dezagun.

G. — Siñisten det... (edo abesti auxen):

Gure kristau-siñismena
biotzez aitorturik,
emateko gertu gaude
biziak onengatik.
Aita Jaun Alguztiduna,
Jesus Seme dalarik,
Espiritu Deunarekin
Jaungoiko bat bakañik.

Pekatuaren menpetik
gu askatu naiean,
Semea gizon egin zan
Amaren sabelean.
Il, piztu ta zeruratu,
an dago goi aldean;
epaitzaile etoriko da
azkenengo egunean.

Jesusek Eleiz donea
luñean utzi digu,
Aita Santu Eñomako
kristau guztien buru.
Ark irakasten duana
siñiskaitzat daukagu.
Kristau-siñismen onetan
beti zintzo jañaitu. Amen.

AP. — Dominus vobiscum.

G. — Et cum spiritu tuo.

MEZAREN BIGAREN ATALA

B) OPARIA

c) *Eskeintza.*

B. — Munduan diran izaki ta gizaki guztiak Jaungoikoarenak dira.

G. — Jaunaren guztien gañetiko jabetasuna on-tzat emanaz, * gure buruak eta gure emariak * biotz-biotzez eskeiñi ditzazkiogun.

(Abestu)

Ogi ta ardo doneak,
baita gure buru,
apaizaren bitartez
eskeintzen ditugu.

B. — Ar zazu, Irutasun Done oñek, Jesusen guru-tze, pizkuntza ta zeruratzearen izenean eskeintzen dizugun opari au.

G. — Andre-Maria Birjiñarentzat * eta zeruko guztientzat goragañi * ta guretzat osasungafi izan dedila.

(Abestu)

Emari auek, Jauna,
zuk bedeinkaturik,
Jesusen Gorputz-Odol
laister daude egiñik.

B. — Mezako oparian Jesusek bere burua opal-tzen du.

G. — Guk ere Jesusekin batera * geron buruak opaldu ditzagun.

— 10 —

(Abestu)

Jesusen Gorputz-atal
gu ere baikera,
artu gaitzazu, Jauna,
arekin batera.

Otoitz ixila.

B. — Eleizarekin batean otoitz egin dezagun.
(Eguneko otoitz ixila).

G. — Amen.

d) *Otoitz Nagusia* (Kanon).

Sanctus.

B. — Opari aundia laister osotuko da. Ezkutuki
auen aŕfean Irutasun guztiz donearen izena begi-
runez beterik goratu dezagun.

G. — Judear umeak Eŕamu-igandez Jesusi beze-
la, * guk ere laister aldarera datoŕenari abestu de-
zaiogun.

(Abestu)

Zeruko santu ta aingeruakin
begirunez auspezturik,
Jaungoikoaren izen aundia
gurtu dezagun poz-pozik.
Gora ta gora, gora abesten du
mundu guztiak gurekin.

B. — Apaizarekin batean luŕean bizi diranen
alde otoitz egin dezagun.

G. — Andre-Mariarekin * ta zerutar guztiakin *
Kristoren goi-gorputzean alkaturik, * Eleiz-donea-
ren alde, * Pio Aita Santu ta Mateo Gotzai jauna-
ren alde, * guraso, senide ta gaiŕerako kristau guz-
tien alde, * zure laguntza eskatzen diŕugu, Jauna.

— 11 —

Zure semeok eskeintzen dizugun * opari au ontzat arturik, * pakezko bizibidea emaiguzu * ta zerurakoen artaldean artu gaitzazu. * Jesukristo gure Jaunaren izenean. Amen.

B. — Emen lufean gogoratzen ditugun santuak.

G. — Zeruan bitarteko izan ditzagula.

Aldakuntza donea edo Jesusen aldareratzea.

B. — Mezaren zati nagusi auxe da: Aldakuntza donea, apaizak Jesusen itzak beretuaz, ogi ta ardoa aŕen Gorputz-Odol biurtzen dituanekoa. Opalkuntza ere oraintxe osotzen da, Jesusen Gorputz eta Odola bereziki izendatuaz, aŕen eriotza irudiz gogoratzen zaigularik.

(Aldakuntza donean, Jesusen Gorputz eta Odol santuak apaizak jasotzean, aiei begira itz auek ixilean esan bitez: «*Nere Jaun ta Jaungoiko*» (Zazpi urte ta zazpi beŕogeikaroko barkamena); mezako *opalgaia* jaungoikozkoa baita. Juan Ebanjelari doneak zeruko aldarean il-da bezela ikusi zuan Arku-meaz zerutafak Jaungoiko bezela gurtzen zuten).

(Aldakuntza-ondoan).

(Abestu)

«Egin dedan au egin zazute
lufak dirauan artean;
Azken-Apari-Misterio au
beŕitu nere izenean».
Jesukristoren itz oen bidez
ofa Jesus aldarean,
Gurutz, Pizkuntza, Zeruratzea
gogoarazi naiean.

B. — Abel'en eskeintza, Abran'ena ta Melkisedek apaizarena ontzat eman zenituan bezela, gure opari au ere begi onez ar zazu, Jauna.

G. — Zeruko zure aldarera iritxi bedi, * zure Gorputz eta Odol agurgariak artuko ditugun guztiok * zeruko bedeinkazioz ta graziz * bete beteak izan gaitzen.

B. — Garbitokiko animen alde apaizarekin batera otoitz egin dezagun.

G. — Kristoren adiskidetasunean il diran guztiak * atsegin, argi ta pakezko tokira eraman ditza-zula * eskatzen dizugu, Jauna. * Jesukristo gure Jaunaren izenean. Amen.

(Abestu)

Kristau guztiok osotzen degu
Gorputz goitar Jesusena;
arenarekin bat izan bedi
geron buru-opalmena.
Kristau guztion opari-bidez
gora Jaunaren izena,
bizi ta ilentzat goi-osasuna,
zerutafentzat omena. Amen.

Jaunartzea.

B. — Jaunartu baiño len, apaizarèkin batean Jesussek irakatsi zigun otoitza esan dezagun.

G. — Aita gurea, zeruetan zaudena...

Agnus Dei.

B. — Munduko pekatuak kentzen dituzun Jaungoikoaren Arkume.

G. — Efuki zakizkigu (bi aldiz).

B. — Munduko pekatuak...

G. — Pakea emaiguzu.

— 13 —

(Abestu)

Jesukristoren gorputz geranok
badegu gure janari;
munduko gaitzak kentzen dituan
Bildots Deunaren aragi.
Jaunartu naiez gauden guztiok,
barkatu pozez alkañi,
goi-janari au izan dakigun
maitasunezko lokañi.

Confiteor.

B. — Biotz garbiz jaunartzeko, gure pekatuak
aitortu ditzagun.

G. — Nik, pekatari onek...

Ap. — Misereatur... G. — Amen.

Ap. — Indulgentiam... G. — Amen.

B. — Jauna, nik ez det merezi zu nere biotzean
sartzea.

G. — (Bulaña jo) Zeroñek agindu zazu ta sen-
datuko da nere anima. (iru aldiz).

MEZAREN IRUGAREN ATALA

C) OPALONDOA

f) *Opalondoko otoitzak.*

B. — Jaunartu ondoan apaizak esan oi dituan
itzak guztiok batean esan ditzagun.

G. — Artu ditugun zure Gorputz eta Odola *
gure eñaietan itxasi bitez, Jauna, * eta iguzu, añen, *
sakramentu donetsi onen bidez garbitu geranok *
pekatuz ez gaitezela beñiz kutsutu. Amen.

— 14 —

B.—Eleizarekin batean otoitz egin dezagun (eguneko jaunartze-ondoko otoitza).

G. — Amen.

AP. — Dominus vobiscum.

G. — Et cum spiritu tuo.

Bedeinkazioa ta azken-ebanjelioa.

(Abestu)

Artu, Jauna, begi onez
goi-opari gurea,
Jesusen anai baikera,
Aita Jainko maitea;
bedeinkatu zerutikan
zure seme-taldea,
baltzen diguzularik
Espiritu Donea.

Gugatik gizon eginda,
Jesusen asmo doneak
ogaitamar urte ta iru
mundu ontan zan bizi.
Jaungoikoaren semetza
ark zigun irabazi,
Espiritu Santu bidez
animak doneturik.

Gure bizitza guztia
Jaunarentzat nai degu,
Jesusen asmo doneak
gure asmo biurtuz.
Bataioan eskeiñia
egunero befitu;
pekatu ta mundukeri
oinperatu ditzagun.

XIII'garren Leon Aita Santuak Meza-ondoan esateko agindutako

ESKARIAK

AP.—Agur Maria... (iru aldiz).

G.—Agur, Efégiña, Ama efukiofa; gure bizi, gozo ta itxaropena, agur! Zure deiez gaude Ebaren ume erbestetuok: zuri aiezka, antsiz ta negafez negaf-efi onetan. Ea bada, itzuli itzazu gure bitarteko on ofek, itzuli gugana zure begi efukitsu oiek, eta erbeste onen ondoren erakus zaiguzu Jesus, zure sabeleko Seme bedeinkatu ori. O biozpera! O efukior! O Maria Birjin gozoa!

AP.—Otoitz egizu gure alde Jaungoikoaren Ama Done ofek.

G.—Jesukristo gure Jaunak eskeiñia iritxi dezagun.

AP.—Otoitz egin dezagun.

G.—Gure igesleku ta indargañi zeran Jaungoiko ofek, * deadarka dagokizun efi au * gogo onez begiratu zazu; * ta Maria Birjiña, Jaungoikoaren Ama garbi zoriontsua, * Jose beronen senar doatsua, * Pedro ta Paulo zure Apostolu zorionekoak * eta santu guztiak * bitarteko ditugula, * pekatariak onbideratzeko, * Eleiz Ama donea askatu ta goratzeko * egiten dizkizugun eskariak * efukiz ta biguntasunez entzun itzazu. * Kristo gure Jaunaren izenean. Amen.

(Migel Deunari eskaria).

Gure animako gudaldietan gorde gaitzazu, Migel Goiaingeru ofek; * deabruaren gaiztakeri * ta azpikerien kontrako * gordeleku izan zakizkigu.

— 16 —

* Jaungoikoak menperatu dezala eskatzen degu; *
eta zuk, * zeruko gudari-taldearen buru zeran ofek,
* animak galtzeko munduan dabiltzan Satanas ta
beste deabru guztiak * Jaungoikoaren indaŕez inper-
nura jaurti itzazu. Amen.

Ap — Jesusen biotz guztiz donetsi.

G. — Eŕuki zakizkigu. (Iru aldiz).

/ / /

BESTE EUSKAL-MEZA-MODU BAT

(Bertsoetan ez dauden itzak, lenagoko mezan bezelakoak izan ditezke).

Aldare-aurrekoa.

Begira zein aundia
gure pekatua!
Ora Jesus gugatik
gurutziltzatua.
Damu degu bai, Jauna,
zu naigabetua;
gutzaz eruki zaitez,
Jaun erukitsua.

Gloria.

Aintza Jaungoikoari
zeru goiengan,
gogo oneko gizonai
pakea lufean.
Auxe kanta aingeruak
Jesus jaiotzean;
auxe kanta dezagun
aiekin batean.

Epistola.

Aita Jaungoikoaren
mandatari santu,
Epistolari goi-itzak
azaltzen dizkigu.
Onen irakatsiak
arretaz ausnartu,

— 18 —

Jaunaren ontasuna
biotzez eskertu.

(Azkenean: Deo gratias.)

Ebanjelioa.

Mandatarí bitartez
ainbeste modutan
gizaldietan zear
itz egin ondoan,
bere Seme bakaña
gizaseme itxuran
bidaltzen digu Aitak
Ebanjelioan.

(Azkenean: Laus tibi, Christe).

Eskeintza.

Abran doneak seme bakaña
eskeiñi zizun bezela,
asmo berean gatoz gu ere,
Jauna, zure aldarera.
Bizi, ondasun ta geron buru
ardo-ogiakin batera
apaiz jaunaren esku bitartez
gatozkizu eskeintzera.

Otoitz Nagusia (Kanon).

(Aldakuntza-aufean).

(Adoro te devote'ren doiñuan).

Santu, santu, santu
Jainko aundia,
Irutasun done
goragaña.
Aingeruakin bat
auspez jaña
gurtzen dagokizu
mundu guztia.

Abestu dezagun
pozez kantari
judear umeak
bezelaxerik:
Osana, Osana
Bildots deunari,
laister aldárera
datoñenari.

— 19 —

(*Aldakuntza-ondoan*).

Ora aldatu dira	Guztion eskeintza au,
ogi ta ardoa,	Jaun erukitsu,
beritutuz opari	zorion-ituñi
gurutzekoa.	izan bekigu;
Ora gure eskeintza,	bizi ta ilai, afen,
Aita Jainkoa,	pake sorburu,
Ixak'ena baiño	aintza zerutafai,
goxoagoa.	dana donetu.
Lurtar ta zerutar,	Gizon eta mundu,
il eta bizi,	aundi ta txiki,
aldare-inguruan	Kristogan bat gera:
gaude bildurik.	Kristoren zati.
Jesusen goi-gorputz	Espiritu santu
geradelarik,	lagun dalarik,
guztiona degu	Kristoren bitartez
aren opari.	omena Aitari. Amen.

Jaunartzerako.

(*Paternoster ondoan*).

(*Tantum ergo'ren doiñuan*).

Jainkoaren Bildots otzan,
gugatik opaldua;
goi-janari sendakor da
zure Gorputz santua;
oren bidez kendu baita
gizonen pekatua.

(*Jaunartze-ondoan*).

Goi-zorion ta bizitza
dauzkate irabaziak
Gorputz-Odol donetsi au
jaten duten guztiak;
ixuri ba gudan, Jauna,
zure goitar graziak. Amen.

Bedeinkazio ta azken-ebanjelioa.

Bukatu degu goi-oparia,
Aita Jainko zerutaña;
bedeinka zazu eleiz ontako
zure semeon batzaña.

Zeru-luñeko gauza guztiak,
gizon, aingeru, mundua
Jesukristoren opari bidez
dana dago donetua.

Izadiaren apaiz bezela
Kristorekin bat egiñik,
gauza guztiak eskeintzen dizka
kristauak Jaungoikoari.

Aita, Seme ta Gogo doneak,
zeru goietan daudenak,
bete bitzate kristau guztion
gogo, biotz eta almenak. Amen.

LENENGO ERASKIÑA

Meza sañera edo introittoa jaiari dagokiona izaten da, ez beti berdiña.

Eleizaren asmoakin bat egiteko, meza-saferan galde-erantzuer auek esan ditezke:

A) ELEIZURTEAREN GARAI BEREZIETAN

a) *Abenduan.*

B.—Abendu santu onetan gure biotzak garbitu bitez.

G.—Itxaroaldi osasungari onek * Egubefiz datorkigun Eñege aundiari * gure animako atea idiki bitzazkio.

B.—Etoñi bekigu, Jauna, zure eñegetza.

G.—Egin bedi zure naia zeruan bezela lufean ere.

B.—Gloria Patri... (Gero *Kyrie* ta abar).

b) *Gabonaldian.*

B.—Artzaiakin eta iru eñegeakin batean Belen-go Aur jaio-beñia gurtu dezagun.

G.—Jaungoiko ta eñege zera zu, Jesus; * gure biotzetan zure eñegetza sendo sendo jañi zazu.

B.—Jaungoikoaren Semea gizon egin zaigu.

G.—Gu giza-semeok Jaungoikoaren seme biur-tzearen.

B.—Gloria Patri...

c) *Garizuman.*

B.—Ona emen garizumako barualdi onurakofa; ona emen animarentzako egun osasungariak.

G.—Pekatuen damuz, * laztasunez ta negarmalkoz, * barauetz ta Jesusen azken-nekeak gogoraturuz, * gure animak Pazkoetarako garbitu ditzagun.

B.—Barka zazkiguzu gure zoñak, Jauna.

G.—Guk geren zordunai barkatzen diegun bezela.

B.—Gloria Patri...

d) *Pazkoaldian.*

B.—Jesus piztuarekin graziazko kristau-bizitza befi batera piztu gera.

G.—Goi-bizi au pekatuz beñiz galtzetik * gorde gaitzazu, Jauna.

B.—Jesus piztu ta zerura igo zan bezela.

G.—Gure biotzak, luñeko uskeriak oinperatuta, * zerumiñez bete ditzazula * eskatzen dizugu, Jauna.

B.—Gloria Patri...

e) *Pazko-ondoko igandeetan.*

B.—Pazko-egunez Espiritu Santuaren grazia gure animetan artu degunok, ez dezagula iñoiz galdu.

G.—Eskatzen dizugu, Jauna.

B.—Azken-epai-egunean ilak eta biziak epaitzera zatozenean zerurakoen artaldean artu gaitzazula.

G.—Eskatzen dizugu, Jauna.

B.—Gloria Patri...

B) SANTUEN JAIETAN

a) *Andre-Mariaren jaietan.*

B.—Poztu gaitezen guztiok Andre-Mariaren jaiontan.

G.—Zeruko aldare-inguruan dauden aingeru ta santu guztiakin batean.

— 23 —

B.—Andre-Maria, beti Birjiña, Jaungoikoaren Ama.

G.—Eřegutu zazu gu pekatarion alde * orain eta gure eriotzako orduan.

B.—Gloria Patri...

b) *Gaiñerako santuen jaietan.*

B.—N. N. santu aundiaren jaia, zerutafakin alkartuta, pozez ospatu dezagun.

G.—Beronen oroipenez eskeintzen dizugun opari au bide dala, * lufean jafaitzaile zintzo * ta zeruan beti betiko zorion-lagun izan gaitezela * eskatzen dizugu, Jauna.

B.—Gloria Patri...

BIGAĖEN ERASKIĖA

(Opalaurean, batez ere Epistola ta Ebanjelio bitartean, igande bakoitzerako izendatuak dauden irakurgai ta otoitz bereziak egiteko erarik ez-padago, abesti aukerak kanta ditezke. Berdin aratsaldeko eleizkizunean ere, eleizurtearen garai bereziari dagokionez).

A) ELEIZURTEAREN GARAI BEREZIETAN

a) *Abenduan.*

(Abestu)

Zugana gatoz eřuki eske...

B.—Etofi bekigu, Jauna, zure eřegetza.

G.—Egin bedi zure naia zeruan bezela lufean ere.

— 24 —

(Abestu)

Lege zaŕean Isŕaeldaŕak
Kristori deiez bezela,
alaxe degu guk ere eskatzen
laister eldu zaitezela.

B—.Etoŕi bekigu...

Betor gugana zure eŕegetza
orain Abendu donean,
zure eŕeiñuan sartu gaitezen
azken-epai-egunean.

B—.Etoŕi bekigu...

Maria degu Gabon-aufean
Jesusganako gidari;
Jesus Aufaren zai egon zanez,
jaŕai dezaiogun ari.

b) *Gabonaldian.*

(Abestu)

Eŕege ta artzai azkar ta alaitsu
badijoaz Jesusgana;
guk ere pozez gurtu dezagun
Aur jaiobefi laztana.

B.—Jaungoikoaren Semea gizon egin zaigu.

G.—Gu giza-semeok Jaungoikoaren seme biurtzearen.

Maria-bidez azaldu zaigu
Askatzaila luŕean;
Maria lagun jaio bekigu
grazi-bidez biotzean.

B.—Jaungoikoaren Semea...

Gu Jainko-seme biurtzearen
gizon egin da Jainkoa.
¡Jainkoa gizon, gizonak Jainko!
¡oŕa mirari goxoa!

— 25 —

c) *Garizuman.*

1) Zugana gatoz efuki eske...

B.—Barka zazkiguzu gure zoñak, Jauna.

G.—Guk geren zordunai barkatzen diegun bezela.

Gorputza gosez ta anima gaizto —
ezta barau egitea.

Pekatu-barau egin dezagun,
auxe da Kristau-bidea.

B.—Barka zazkiguzu...

Baraualdian damu ditzagun
gure pekatu guztiak,
piztu, garbitu, sendotu gaitzan
Jesusen Pazko-graziak.

B.—Barka zazkiguzu...

Jesus Maria oiñazetuak —
Pazko-aufeko eredu;
garizumako barau-nekeak
zeruko bide ditugu.

B.—Barka zazkiguzu...

2) Begira zein aundia

B.—Barka zazkiguzu...

Jesus eta Maria
oiñazez beteak
ditugu garizuman
biderakusleak.
Gogoratu ditzagun
aien oiñazeak,
Pazkoz beñitu gaitzan
goi-grazi doneak.

B.—Barka zazkiguzu...

— 26 —

Gutxitu janaria,
pekatuak geitu —
oñelako barauak
onurarik eztu.
Pekatu-barau egin,
jolas txafak aztu:
zeruko Pazkoetan
sarituko zaigu.

d) *Pazkoaldian.*

(Abestu)

Piztu da Jesus Pazko-Bildotsa,
gurutzean opaldua;
adiskidetu zaigu Jaungoiko,
azpiratu pekatua.

B.—Jesus piztuarekin graziazko kristau-bizitza
befi batera piztu gera.

G.—Goi-bizi au pekatuz beñiz galtzetik gorde
gaitzazu, Jauna.

Jesus piztuaz, ezereztu da
eriotzaren indaia;
Kristau guztiok izan dezagun
piztuera zerutara.

B.—Jesus piztuarekin...

Jesusekin bat piztu geranok
bizi zerura begira;
mundukeri ta lur-atsegiñak
auek guretzat eztira.

e) *Espiritu Santuaren Pazko ondoko igandeetan.*

1) Gabonez jaio ta Aste santuz il,
piztu ta zeruraturik,
Gogo donea zigun Jesusek
Pazkoz bidali zerutik.

B.—Pazko-egunez Espiritu Santuaren grazia gure animetan artu degunok, ez dezagula iñoiz galdu.

G.—Eskatzen dizugu, Jauna.

Indartu beza Gogo doneak
gure grazizko bizitza;
munduan zear gure pausuak
gorde ta zuzendu bitza.

B.—Pazko-egunez...

Bizitz-ondoan zorionean
nai gaitu Jainko maiteak;
il-aurrez bila datořenean,
goazen pozez beteak.

B.—Pazko-egunez...

2) Luřeko egikizuna
zanean bukatu,
Aitagana zan Jesus
befiz zeruratu:
Pazko-egun-goizean
Espiritu Santu
jařaitzaileengana
andik bialtzen du.

B.—Pazko-egunez...

Espiritu donea
animen gidari,
ařen zure grazia
emaiguzu ugari;

— 28 —

orain zintzo jafaituz
Jesus maiteari,
beraxe izan dakigun
gero gure sari.

B) SANTUEN JAIETAN

a) *Andre-Mariaren jaietan.*

Santu ta aingeruakin
alkartasunean
poz gaitezen guztiok
Jaunaren aŕfean.
Gora gaur Mariari
zeru ta luŕfean,
aren jaia baitegu
gaurko egunean.

B.—Andre-Maria, beti Birjiña, Jaungoikoaren
Ama.

G.—Eŕegutu zazu gu pekatarien alde orain eta
gure eriotzako orduan.

Birjiña sortzez garbi,
graziaz betea,
Jaungoikoaren Ama,
gure zaitzailea,
Ebaren semeontzat
grazi emaila,
luŕeko indargafi,
zeruko atea.

B.—Andre-Maria...

Birjiñaren sabela,
Jainko-bizileku:
guk ere jaunartzean
ala bear degu.

— 29 —

«Bete Jaunaren naia
ta *Itza* pozez artu :
oña nere aitâmak»
—Kristok esan digu—.

b) *Gaiñerako santuen jaietan.*

Oiñaze-bidez iritxi dute
zoriona zerutafak :
zeru-zorion biurtzen dira
mundu ontako negafak.

B.—Emen luñean aintzaz gogoratzen ditugun
santuak.

G.—Zeruan bitarteko izan ditzagula.
Jesusekin bat Jainkoarentzat
bizi nai duan guztiak
mundu onetan izango ditu
eramanbear aundiak.

B.—Emen luñean...
Zorioneko Kristorengatik
atsekabez dabilena :
zeruan Jaunak sarituko du
luñeko eramapena.

B.—Emen luñean...
Santu-bidean gora gu ere
elduko gera zerura,
Aita, Seme ta Gogo donea
laguntzaile ditugula.

— 30 —

IRUGAÑEN ERASKIÑA

JAUNARTZE-ONDOKO ESKER-OTOITZAK eta
BATAIOKO ESKEINTZAK BÉRITZEKO ERA

San Iñazio Loiolakoaren otoitza.

Kristoren anima, * santu egin nazazu
Kristoren gorputz, * salba nazazu.
Kristoren odol, * ase nazazu.
Kristoren saietseko ur, * garbi nazazu.
Kristoren nekaldi, * indartu nazazu.
Jesus on, * entzun nazazu.
Zure zaurien baruan * gorde nazazu.
Zugandik aldendu nadin * etzaidazu utzi.
Etsai gaiztoengandik * zaindu nazazu.
Eriotzako orduan * dei egin zaidazu.
Zugana joateko * agindu zaidazu.
Zure santuakin batean * gora zaitzadan.
Gizaldi-gizaldietan. Amen.

(300 eguneroko barkamena; 7 urte ta 7 befogeikarokoa, egunean bein, jaunartu ondoan; barkamen osoa ilean bein, egunero esan ezker).

Kristo Eregeari.

Mundu guztiaren Efegetzat * aitortzen zaitut
nik, Jesukristo. * Egindako guztia, * zugatik egi-
ña da. * Zure nereko eskubideak * oso-osoa
egiztatu itzazu. * Nere bataioan emandako itza be-
fituaz, * Satanas * bere aundikeri ta egikera guz-
tiakin alde batera utzi * ta kristau on bezela bizi
nai det. * Batez ere * Jaungoikoaren ta zure Elei-

zaren eskubideak aufera eramaten * alegiñak egingo ditut. * Zure Efegetasun donetsia * biotz guztiak ontzat eman * ta, ofela, zure pakezko Efegetza * mundu guztian sendo jañi dedin * nere egite guztien gutxitasuna * eskeintzet dizut zuri, * jaungoikozko Jesusen Biotz ofi. Amen.

(Barkamen osoa, oiturazko betekizunak bete ezker. S. POEN. AP., 1923).

Aita Gurutzekoaren auñean esateko otoitza.

Ona emen, * Jesus on ta guztiz gozoa, * zure auñean belaunikaturik naukazu; * ta animako berotasunik aundienez, * siñiste, itxaropen ta maitasun bizi-bizia, * nere pekatuen egizko damua * ta pekaturik geiago ez egiteko asmo sendoa * nere biotzean ezañi ditzazula * bein ta beñiz eskatzen dizut, * Dabid Igarleak, Jesus on ofi, * aoan jañi zizkizun itzak: * «Nere esku-oiñak zulatu egin dituzte ta nere ezur guztiak zenbatu dira» * begien auñean dauzkadalarik, * zure bost Zauriak nere bañuan * biotzeko maitasun ta atsekabe aundiz * gogoratu ta adimenez begiztatzen ditudan artean.

(Barkamen osoa, aitortu, jaunartu ta Aita Santuaren asmoetarako otoitz egiñaz).

Ama Birjiñari otoitza.

Maria, * Birjiña ta Ama guztiz done, * ona zure sabel garbian sortu zenduana, * zugandik jaio, * zuk bulafa eman * ta besarkatze goxo goxoz estutu zenduan zure seme maite maitea artu det. * Ona, * ikusteak pozez eta atsegin eztiz betetzen zin-

duan au, * berauxe aúfean jartzen dizut * eta zure besoz estutu ta biotzez maite dezazun eskeintzen dizut: * Irutasun guztiz doneari, * beronen guztizko jabetasuna aitortzeko, * zure omen ta aintzarako, * ta nere ta mundu guztiaren beaíetarako eskeiñi zaiozu. * Iritxi zadazu, afen, Ama txit erukior ofek, * nere pekatu guztien barkamena, * auferantzean zure semearen mirabe zintzoago izatea * ta betikotasun osoan zurekin batean bera goratzera eldu al izateko azken-grazia. Amen.

(100 eguneroko barkamena, egunean bein).

BATAIOKO ESKEINTZEN BEÍITZEA

AP.—Bataioan, zuen ordezekoaren aoz, Satanas utzi ta Kristorenak izateko gertu zeundetela esan zenuten. Afezkero, Kristoren gorputz-atal bezela, Kristorekin bat eginda bizi zerate. Kristoren goigorputz geranoi bere Gorputz-Odola janaritzat ematen zaigu, gure kristau-bizitza goitaíaren indargaíi. Goi-janari onek, gure Bataioa sendotuta, Kristorekin lotuago uzten gaitu, Kristoren banderapean jaíaitzeko indaíra ematen digu. Beíitu ditzagun, beraz, Bataioko eskeintzak, Kristo gure biotzetara etofí zaigun egun aundi ontan. Satanas alde batera utzi ta oinperatzeko gertu zaudete?

G.—Bai, Jauna.

AP.—Satanasen aundikeri ta egikera guztiak zapaltzeko gertu zaudete?

G.—Bai, Jauna.

AP.—Aita Jaungoiko alguztidun bat dala, zerulurak egin dituana siñisten al dezute?

G.—Bai, Jauna.



AP.—Jesukristo, Jaungoikoaren Semea, gu zeruratzearen gizon egin, gurutzean il, irugafen egunean piztu, zerura igo ta Aita Jaungoikoaren eskubialdean eserita dagoala siñisten al dezute?

G.—Bai, Jauna.

AP.—Espiritu Santu Jaungoikoa Jesukristoren Eleizan ta kristau zintzoen animetan bizi dala siñisten al dezute?

G.—Bai, Jauna.

AP.—Jesukristo aldareko sakramentu guztiz santuan egiz ta bene-benetan dagoala siñisten al dezute?

G.—Bai, Jauna.

AP.—Eleiza Ama doneak irakasten digun guztia siñisten al dezute?

G.—Bai, Jauna.

AP.—Pekatu egin baiño lenago bizia emateko gertu al zaudete?

G.—Bai, Jauna.

AP.—Ama Birjiña Arantzazukoaren banderapean Kristoren jafaitzaile zintzo beti izateko gertu al zaudete?

G.—Bai, Jauna.

AP.—Zuen asmoetan sendo iraun dezazuten, Aita Jaungoikoak, Seme Jaungoikoak eta Espiritu Santu Jaungoikoak orain eta beti bedeinka zaitzatela.

G.—Amen.

Gure kristau-siñismena...

(edo)

Gure bizitza guztia...

ELEIZATIK ATERATZEAN

Aita Prantzisko donearen otoitza.

Emen ta lufean diran zure eleiza guztietan *
gurtu ta goratzen zaitugu, * Jesukristo gure Jaun
guztiz done ori, * zure gurutze santuaren bidez *
mundua askatu dezulako.

(7 urte ta 7 befogeikaroko barkamena irabazten du elizan sar-
tzean edo andik irtetzean otoitz au belaunikaturik esaten duanak; ta,
egunero esan ezkerro, barkamen osoa ilean bein).



